

# XEDAPEN OROKORRAK

## KULTURA SAILA

### 4104

*AGINDUA, 2011ko uztailaren 11koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuko 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoak kontuan izanik;

Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak (DOBAUBA) 2010ean eta 2011n egindako bileratan proposatu ziren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartu zituela ikusirik,

Honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskinean azaltzen diren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzea.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 11.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## I. ERANSKINA

## 1.- Euskadiko toki-administrazioaren dokumentazio propioa

Seriearen kodea	001
Dokumentu-seriea	Trafikoaren alorreko, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren alorreko arau-hausteen zehapen espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, sei urtera, betiere izapidetza administratiboa edota judiziala amaitu eta gero.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	002
Dokumentu-seriea	Baimen, lizentzia eta oporrak eskatzeko espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, bulegoko artxiboan dokumentuen urte naturala amaitu eta bi urtera.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	003
Dokumentu-seriea	Espediente pertsonala
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	004
Dokumentu-seriea	Langileen prestakuntza espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, bulegoko artxiboan bost urtera, ziurtagiriak izan ezik. Ziurtagiriak espediente pertsonalean artxibatuko dira.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	005
Dokumentu-seriea	Erretiro espedientea
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra, espediente pertsonalean.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	006
Dokumentu-seriea	Langileen aukeraketarako espedientea
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra. Bulegoko artxiboan suntsitu ahalko dira espedientea amaitu eta sei hilabetera hautaketako prozeduran parte hartu ez duten izangaien eskaerak eta aurkeztutako merezimenduak; eta baita ere hautaprobak gainditu ez dituzten dokumentuak eta azterketak behin lau urte igaro eta gero.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	007
Dokumentu-seriea	Nominen aldaketen espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, behin erabilera administratiboa amaitu eta gero, eta betiere nominen zerrendak betiko kontserbatzen badira.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	008
Dokumentu-seriea	Funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen diziplinako espedientea
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	009
Dokumentu-seriea	Mutualitateko likidazioak
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, dokumentuaren datatik berrogeita hamahiru urtera.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	010
Dokumentu-seriea	TC1 eta TC2 likidazioak
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, dokumentuaren datatik berrogeita hamahiru urtera.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	011
Dokumentu-seriea	Lan-eszedentzia eskaera
Ebazpena	Suntsiketa partziala, eskaera eta baimena eta jarduneko zerbitzura itzultzeko dokumentua espediente pertsonalean gordeko dira.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	012
Dokumentu-seriea	Ordutegia kontrolatzeko espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, bulegoko artxiboan dokumentuak ekoitzi diren urte naturala amaitu eta bi urtera, diziplinako espedienteren bat edota beste prozeduraren bat sortu dituztenak izan ezik. Horiek irekitako prozedurak amaitu arte kontserbatuko dira.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	013
Dokumentu-seriea	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) likidazioak
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, dagokion aurrekontu ekitaldia itxi eta hamar urtera.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	014
Dokumentu-seriea	Zerbitzu eginkizunen espedientea
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra, espediente pertsonalean.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	015
Dokumentu-seriea	Kontsumorako maileguen espedientea
Ebazpena	Erabateko suntsiketa, bulegoko artxiboan espediente itxi eta bost urtera.
Erakundea	Udalak

Seriearen kodea	016
Dokumentu-seriea	Nominen zerrenda
Ebazpena	Kontserbazio iraunkorra
Erakundea	Udalak